

ARAUDIA

IX.BEÑAT

ELZO MENDI

LASTERKETA

2024/09/17

1. Artikulua

Beñat Elzo Mendi Lasterketaren antolaketa batzordeak, Sport Mundi Fundazioaren bitartez, urte bakoitzeko azaroaren 1ean, BEÑAT ELZO MENDI LASTERKETA antolatzen du, adin nagusiko guztiei irekia (18 urte beteak lasterketaren egunean).

2. Artikulua

Lasterketa 10,74 km-ko distantzian jokatu da, ibilbide honen arabera: Irteera 11:00etan kirol portutik, tabernen aurrean. Hondartzara bidean, hondartzako aparkalekua inguratu, bidegorria hartu eta itsasargira igo arte jarraitu. Talaia bidetik desbideratu eta itsasargia inguratuz, kanpineko aparkalekuraino igo. Artzurako baso-pista hartu. Araztegia igaro ondoren, eskuinera desbideratu talaia bidetik. Gornutz parera iristean, baso-pistara igo eta itsasargira itzuli. Araztegira iritsi aurretik, bidezidorretik gora desbideratu behar da Atalaia baserriraino, eta handik itsasargiraino jaitsi hormigoizko pistatik. Talaia bidetik porturaino itzuli eta bidegorritik amaitu helmugara iritsi arte.

3. Artikulua

Iritsiera-kontrola, irteera eman eta ORDU ETA ERDIRA ITXIKO DA. Gehienezko denbora hori gainditzen duten korrikalariak lasterketa utzi beharko dute. Ondorioz, antolatzailleek dortsala kendu ahal izango diete lasterketa-erritmoagatik kontrola gainditu dezaketen parte hartzaileei.

4. Artikulua

Lasterketarako hautagai orok izena eman eta dagokion ordainketa egin beharko du izena emateko plataforman adierazitako eguna baino lehen. Behar bezala egindako inskripzio bakoitzak dorsal bat ematen dio parte-hartzaileari. Dorsal hori lasterketa amaitzean egiten den oparien zozketarako erabiliko da.

5. Artikulua

Aseguru batek erakundearen erantzukizun zibila estaliko du proba egiten den bitartean. Lizentzia duten korrikalariak beraiei lizentziarekin lotutako aseguru-etxearekin adostutako bermeak izango dituzte.

6. Artikulua

Ezarritako denboren barruan proba amaitzen duten parte-hartzaile guztien sailkapena ezarriko da.

7. Artikulua

Dortsalak bularraren parean finkatuko dira, babeslearen zenbakia eta izena ondo ikusteko moduan. Parte hartzaile guztiek oroigarri bezala kamixeta bat jasoko dute.

8. Artikulua

Antolakuntzak behar den guztia egingo du lasterketa ordenaz eta diziplinaz bete dadin. Proba langile eskudunek kontrolatuko dute, DYArekin laguntzarekin, osasun-laguntzarako, probak irauten duen bitartean, anbulantzien eta laguntzako postu finkoen bidez. Anoa gunea 5. kilometroan jarriko da.

9. Artikulua

Antolakuntzak parte-hartzaileen seriotasuna eta kirol-zintzotasunarekin kontatzen du, kirol-arauak errespetatu beharko dituztelarik. Proba bere osotasunean egingo dute, beren ahaleginari esker, kanpoko laguntza oro debekatuko da, eta era berean, gainerako parte-hartzaileen kaltetan egindako edozein motatako akzio debekatuko da. Erakundeak bolondresak jarriko ditu, irteeran eta lasterketan zehar arau horiek errespetatzen direla ziurtatzeko, eta arau horiek urratzen dituzten korrikalariak ondo begiztatzeko. Batzorde antolatzaileak, arauak urratzen dituztenak desklassifikatzeko edo deskalifikatzeko eskubidea gordeko du. Denbora-zigorrekin zigortuko dira arau-hausteak

10. Artikulua

Kirol-portuko irteera-eremua hesien bidez mugatuta egongo da, beraz, parte-hartzaileek irteerara atzeko aldetik sartu beharko dira.

11. Artikulua

Sari-banaketa 12:00etatik 12:30era egingo da. Dorsalak dituztenen artean hainbat opari zozketatuko dira.

12. Artikulua

Antolakuntza-batzordeak beretzat gordetzen du erregelamendu honetako xedapen eta aldaketa guztiak hartzeko eskubidea, inguruabarrek hala behartzen badute. Proban parte hartzeak berekin dakar erregelamendu hau erabat onartzea.

OHARRA: Erabat debekatuta dago lasterketan zehar laguntzaileak bizikletaz egotea.